

ETIKA UNIBERTSALA (I)

Hitzaurrea

Nire anaia Genaroren “ETIKA UNIBERTSALA” artikuluari buruz hitz erdi.

Egia, eta borobila, deritzot, bere “I.- SARRERA-ko lehen lerroari: “Etikaren azterketan ere gaur aurrekoek eman dizkiguten argibideak darabilgu lagungarri.”

Horrela izan da eta da, beti. Aurreko erraldoien bizkar gainean omen goaz gaurko haurrok (gizakiok). Bai eta, nire kasuan, aurrekoak izan gabe, nire benetako lagunbide diren argibideekin ... Adiskideekin betetzen da-eta Inaziok zioen hura: *“El amor consiste en comunicación de las dos partes ... de manera que si el uno tiene ciencia, dar al que no la tiene, si honores, si riquezas, y así el otro al otro”*.

Hori, nire zorion pertsonalerako, nire anaia Genarorekin gertatu zait beti; pare gabeko lagun-adiskide izan dut. Ez da, bada, harritzekoa, elkarrengandik asko ikasi badugu, nik, behintzat, beragandik. Ze, bere jakinduria distiratsu sakonaz eta, aldi berean, bere gizatasun harrigarriaz markatu nau.

Diodan hori nolabait adierazteko, Jose Saramago, Literatura Nobel sariak, Suediako Akademiaren aurrean esan zuena gogoratzen dut. Hitz hauekin eman zion hasiera, hain zuzen, bere entzute handiko hitzaldiari: *“el hombre más sabio que he conocido en toda mi vida no sabía ni leer ni escribir”*. Gizakirik jakintsuena, bera gehien markatu zuena, bere aitaita analfabetoa izan omen zen. Kulturarik sakonen-

zabalen-aberatsena erakutsi ziona, neurri gabeko aberastasunaz hornituta zelako, gizaki aparta zelako.

Nahiko esan dudala, oraingoz, nire anaiaaren artikulu horri buruz, iruditzen zait. Milaka –bai milaka– ikasleen maisu izan naiz unibertsitatean. Baita ere maisu askoren ikasle –Sofocles – Socrates – Platon – Aristoteles – santo Tomas – Dostoyewsky – Pico della Mirandola – Antonio Machado – Albert Camus – Jose Luis Aranguren ... eta beste askorena. Maisu batena, baina, bereiziki eta zoriontsu izan naiz eta naiz, ikasle; nire anaia Genarorena. Bihotzak edo maitasunak liluratu-ta diodala ...? Esan beza irakurleak nire anaia benetan irakurriz gero.

Roman Garate

I.- SARRERA

Etikaren azterketan ere gaur aurrekoek eman dizkiguten argibideak darabilgu lagungarri. Hasteko aitortu behar dut nire anaia Roman izan dela, Deustun Etika katedraz arduratu zenetik, nire etika gidari eta maisu, ni bere ikasle.

Ez dago, ba, nire lantxo honi sarrera hobea egiterik Roman beraren esaldi batzuek aipatzea baino.

“Maitatzea da nahimen askearen ekintzarik osoena, baiezkorrena, sortzaileena, zoriontsuena. Maite eta ekin, maitasunaz ekin, da gizakiaren osasuna eta gailurra, da ekintzarik sakone-na, eragileena.”¹

“Ez da, ez, inoiz izan, ez Jean B. Lacordairek hori zioenean, ez eta gaur, “mekanismoa” gure mundua. Maitasun deia, maitasun grina eta guraria, maitasun eginkizuna da, izan den bezala, gure mundua, gizakia askatasun aristokrazia denez gero, hots, gizakia gizaki denez gero.”²

“Gizakia, gizaki denez eta delako, etika/morala da. Bat gatz horretan sasoi hartako R. Gaudyrek, gizakia bera dela etika/moralaren eta balio moralaren iturria eta oinarria aitortzerakoan. ...Hemen, bada, zera dago guretzat argi eta garbi:

¹ Roman Garate, “Etika eta askatasuna”. Gero, 1993, 49

² Roman Garate, “Etika eta askatasuna”. Gero, 1993. 50

Gizakia etika da. Gizakia morala da. Gizakia balio-moralak da. Eta hori, gizakia denez eta delako.”³

“Zuzena ala okerra, ona ala gaiztoa, moralki, berez, gizaki beraren neurria delako da. Zuzena ala okerra, ona ala gaizkia, moralki, gizaki beraren arabera da, bere neurrira, eta...”⁴

“Gizakia etika/morala da gizaki denez eta delako. Gizakiak, gizaki denez eta delako, bere baitan **aurkitzen** du bere etika/morala”⁵

”Etika, berez, laikoa da.”⁶

“Baina hori bidenabar azalduz gero, geurera itzuli behar gara. Gizakiara. Gizaki denez gizakiaren funtsera... hots, bere **duintasunera**.

Arauak, metroak, neurriak eginkizuna azaltzen du. Eginkizun hori gizakia bera da. Gizakiak egin egin behar du “izan zaitez zarena”, ekintza moralaz. Hori, ordea, helburuaren abia-buru eta burubide eta burutu beharrekoa gizakia bera da. Eta gizaki hori funtsean karakterizatzen duena, bere labirinto, gailur-leize guztietan zehar lortu behar duena bere ekintza moral guztiekin, bere **duintasuna** da.”⁷

“Ze porrot egin badezake ere gizakiak bere duintasun egin-kizunean, bera da, bere funtsa da; **ez** urrutikoa, norberaren (norberagandik-norberagan) **gertuena** baizik, **hurkoena** baizik da burutu behar duen **duintasuna**.”⁸

“Ez, bada, hiru etika -hiru “*nivel*”-etan bereiz badaiteke ere, “*nivel*” horien arloak egunka eta milaka izanik, jakina; etika bat baizik, duintasunaren etika alegia. Eta duintasun etikak **norabideratzen** du gizakia, duintasun den gizakia, norbera **helburutzat** hartuz “*propter se ipsum existens*”, bere askatasunaren bitartez “*elegir*” “aukera” eginez.”⁹

³ ibid. 132.

⁴ ibid. 133.

⁵ ibid. 134.

⁶ ibid. 135.

⁷ ibid. 238..

⁸ ibid. 241.

⁹ ibid. 284.

Beraz, Romanen bizkar gainetik baina bere ikusbideari jarraituz, gizakiaren duintasun hori zerbait gehixeago zehaztea lortu dudala uste dut: maitagogo izatean datzala. Gizakia soinezko maitari-ezagutari-hautari (=maitagogo) izatean datzala bere duintasuna. Hori da nire abiapuntua.

II.- ETIKARI BURUZKO GALDERAK

Gure giza jakituriak bost pauso/galderatan argitzen digu etikari buruzko arazoa:

1) Ia etika baden; 2) Etika zer den; 3) Etikak zertaz diharduen; 4) Etika nor den. 5) Etika non den.

III.-GURE ERANTZUN/BAIESPENAK

1.- ETIKA BADA. ETIKA IZATEAREN FUNTSA: HAUTAMENA

a.- *Hautamena*

Etikaren azterketa-harrotze lanean sartzeko lehen pausoa, sarri ahazten dena baina zeharo beharrezkoa, galdera honi erantzutea da: etika, BADA?

Etika badela, lehenbizi, lehengo eta oraingo gizakiari eta gizadiari buruz esanak aztertuz, argi eta garbi azaltzen zaigu: iraganean eta gaur gizaki guztiek –gero aipatuko ditugun pentsalari bitxi batzuen esanak utziz– jakineko egiaztat ematen dutela etika badela. Baina galderaren muina argitu nahi izanez gero, arazo sakona da, aztergai da.

Puntu honen eztabaidan hasteko, ezinbestekoa da **hautamena**ren eta **askatasuna**ren arteko bereizketa garbia burutzea. Honela definitzen ditu kontzeptu hauek ELHUYAR hiztegi bikainak:

Askatasun. *iz.* 1. Eragozpenik eza, traba-gabezia. 2. Besteren mendeko ez denaren egoera. 3. Espetxean edo atxiloturik ez dagoenaren egoera. 4. Zapalkuntzarik eza.

Hautamen. *iz.:* 1. Hautaketa. 2. Hautatzeko ahalmena, auke-ramena.

Beraz, askatasuna egoera da, zerbaitek/norbaitek lotuta ez egotea, **eza** da. Lokarririk, loturarik **eza**.

Hautamena, aldiz, **ahalmena** da, hauta-ahalmena.

Gizakia hautari (hautamendu) jaiotzen da eta dirau bizitza guztian. Zerbaitek/norbaitek trabatzen/lotzen badu, orduan eduki dezake norbait/zerbait horrengandik askatu nahia, askatasuna (lokarririk eza) berreskuratu beharra. Gehienetan hautamenak askatasuna hautatu ohi du, baina ez beti; gai da askatasun osoa eskaintzeko -eragozpenik, mendekotasunik, espetxerik, zapalkuntzarik gogorrenak eta heriotza bera onartzeko-gogoagoko maitagairen baten bila.

Gizakia hautari da, izan; aske, aldiz, dago ala ez dago. Eta zenbat lokarri, hainbat askatu behar. Hortik dator askatasun mota asko dagoela baiestea, gizakiaren izaerari ez baino gizakiaren egoerari dagozkionak. Hautamena, aldiz, bat bera da beti.

Etikaren azterketan hitz (kontzeptu, esanahi) erabakigarria 'hautamen' hitza da, guk erabiliko duguna, hain aipatua izan ohi den 'askatasun' hitza gaingituz. Etikaren funtsa hautamena baita, hau ala hori aukeratzeko (gogoz, hitzez, egitez) ahalmena.

Gizakia hautari denez, hautari den neurrian dago etika, giza etika. Gizakiak ondo ala gaizki, zuzen ala oker, ederki ala itsusi hautatzean datza etika. Hautamendu den izaki oro etikoa da. Horrela gizakia. Hautamenik gabeko izakia, ez da etikoa.

Gizakia naturako izaki hautaria da, ederra zatararren aurrean bereizten/hobesten dakiena. Egia/zuzena ala gezurra/okerraren artean hautaketa egiten ari dena. Ekintza batzuk 'ongia' eta beste batzuk 'gaizkia' izendatzen/epaitzen diharduena. Hitz batez, askotan kausalitate hutsaren jaun eta jabe den izakia, determinismoaren katea puskatu eta benetan determinista autonomo –*sorburu* - jokatzen duen izakia.

Ez dago zientzialari bat, ez dago filosofo bat ez diharduenik egiaren ezagutari/hautari/maitari; egiarik ez dela, ez duela maite esango duenik. Eta 'egia' eta 'faltsua' ez dira jardun

itsuaren ondorio determinatuak; gizaki hautariak bilari aurkituak –hobetsiak/etsetsiak– baizik. Hautamenez aukeratuak. Zientzia, filosofia, giza hautamenaren emaitzak dira. Etikaren azalpen/aitorpen distiratsuak dira.

Hautamena, gaur dakigunaren arabera, kosmosean giza-kiagan bakarrik dagoen ahalmena da. Gizakiagan **badagoen** ahalmena. Gizakiagan izan ezik, ez dago kosmosean izaki etikorik.

Hautamena badela gizakiagan, gizakia benetan hautari dela baiesteak zeharoko ondorioak dauzka giza jardun guztietan: zientzian, filosofian, bizitza osoan, aldi eta une guztietan.

b.- Hautamenari buruzko iritziak: Laplace, deterministak eta kausa-orokor zaleak

Gure azken gizalde hauek arte inor gutxi (filosofo bitxi batzuk) ipintzen zuen zalantzan etika ba dela. Zientziaren gorakada ikusgarriak eman zuen bidea den dena kausalitatearen legeez erakutsia eta adierazia izango dela uste izateko eta harro oihukatzekeo aitzakia. Alda ezinezko kausalitatearen printzipioa onartzen dutenek etikarik ez dela diote, agirian ala isilean. Argi eta garbi hautamena ukatua izan ez bada ere, izan da, bai, ilunpera baztertua. Garbi baitago determinismo orokorra - giza hautamenik eza- egiaztat onartzen duenak, etikarik ez dela baiesten diharduela.

Baina hauen iritzia ez da aintzakotzat hartzekoa. Determinismoa onartuz gero, determinismoaren zalea determinismoz da zalea; eta determinismoaren ukatzailea determinismoz da, baita ere, ukatzailea. Ez dago egia-rik ala gezurrik. Ez dago teoria zuzenik ala okerrik. Beraz, Laplace eta bere jarraitzaile eta kideek, euren logika onetsiz gero isilik egon behar dute. Eta euren iritzia egiaztat aurkeztzen badute, alper alperrik ari dira erredundantzia hutsalez eurok orokorrean ukatzen duten egia- ren (eta egia ororen) kontrakoa baiesten (determinismoa egia- tzat ematen). Hau da, egia- ren ukapena egiaztatzen.

Eta norbaitek (Nietzschek, adibidez) esaten badu egirik ez dela, besteen egiaz ari da, baina ez berak aurkituaz (egirik eza, hain zuzen). Berari so eginez, egirik ez dago bat izan ezik: berea.

Hautamena gizakiaren gogo muinean datza. Askatasuna (lo-karririk, eragozpenik eza) animaliak ere maite dute. Baina ez dute hautamen izpirik.

Gizakiaren hautamena da, gizaki hautaria da determinismoa eta kausalitate huts guztiak ezabatzen eta gainditzen dituen giza ahalmena, denon izanean eta irizpideetan zeharo nabaria. Nolabaiteko irudiz esanez, gizakiagan gogo gidari/bilari da, eta adimena argigiletzat darabil, nahimena indartzat, oroimena informatzailatzat. Gogo hautaria da denen kapitain-pilotu.

Loiolako Ignaciok, adibidez, zehatz-mehatz kontzeptu biak (hautamena eta askatasuna) zuzen bereizturik, bere askatasuna zeharo, osorik bere Jaunari eskaintzea hautatzen du. *“Tomad, Señor, y recibid, toda mi libertad, mi memoria, mi entendimiento ...”* Ez dio hautamenari uko egiten, hautamenean finkatuz askatasuna eskaintzen dio bere Jaunari. Eta horrela ideal, erlijio, erakunde-helburu guztietan hautari izan diren martir guztiak.

Baina eman dezagun badirela determinista zintzo logikoak, isilik dirautenak. Hauek aintzakotzat hartzekoak dira gure azterketan, eta eurekin jardungo dugu orain.

Hauen iritziaren babesa hitz baten esanahi-erabileran kokatzen da, batez ere: **kausa** hitzaren ulerkeran. Honela definitzen du hitz hau ELHUYAR hiztegiak:

“kausa. *iz.* 1. (batez ere Ipar.) Ondorio bat gertatzeko izan den arrazoia, zergatia, zioa.”

Eta honela definitzen du **egile** hitza:

“egile. *iz.* Zerbait egiten duen pertsona.

Beraz, kausa ondorio bat gerta dadin zerbait aurrekoa da. Egilea, aldiz, zerbait gertarazten duen pertsona da. Zehazki pertsona gisa ari den gizakia.

Gure aldetik, kausa hitzaren esanahia argitzeko, galdera xume bat egingo dugu: “ ‘Karamazov anaiak’ eleberria idatzi zuen Dostoievski zer da? Liburu horren kausa?” Gure erantzuna hau da: “Kausa ez, egilea bai”. Dostoievski liburu horren sorburua da; ‘kausa’ hitza gaur egun eta dihardugun arloan, ezin dugu ‘egile’ hitzaren sinonimotzat hartu.

“Grabitate teoria asmatu zuen Newton, teoria horren ‘kausa’ da? “Kausa ez, asmatzaile/aurkitzailea bai. Teoria horren sorburua da, egilea da. ‘Kausa’ hitza ez da zehazki egokia eta gogokoa teoria horren sorburu/egileari itsasteko.

“Moises eskultura zizelkatu zuen Migel Angel, eskultura horren kausa da?” Ez, kausa ez, lan hori landu zuena da. Sorburu/egilea da.

Egilea hautari sorrarazten diharduen *pertsona* da.

Egilea esatean gertaera baten sorburua aipatzen dugu. Egilean sortu da, egilea ez da kate-ondorio, sortu den zerbait berri horren lehenbiziko buru baizik.

Dostoievski, Newton eta Migel Angel sorburuak determinismoaren ukapen duda ezinak dira.

Guk, lan osoan, gaur bertan begien aurrean daukagun giza-kiagan beragan, beste inora jo gabe, azaltzen den izana eta ahalmenak dakartzagu denon gogora. ‘Kausa’ hitzaren esanahi horri ezezko horiek ematean ez gabiltza naturatik kanpoko zerbait ezartzen gure hausnarketan. Gaur nabari azaltzen zaigun naturaren barru barruan gabiltza. Gizakia natura da. Eta denon bistan dagoenez, bere barru barrutik egiaren, ederraren, ongiaren bila dabilen natura. Sorburu izan daitekeen, sarri hamaika eratan sorburu den naturako izaki bilaria. Dostoievski, Newton eta Migel Angel bezalaxe, ederraren eta egiaren eta ongiaren maitari-hautari-ezagutari. ‘Karamazov anaiak’ eleberria idazteko, grabitate teoria aurkitzeko, Moises eskultura azalerazteko gai den gizakia.

‘Kausa’ hitza ‘sorburu’ (idazle, asmatzaile, egile) hitzarekin bat egitea okerreko pausoa da, bai zientzian eta bai filosofian. Zientziaren eta filosofiaren kontrako nahasketa/urraketa burutzea.

‘Jakituria’ hitza gizakiaren ezagun-sail guztietan erabil daiteke. Zientzian, gaur batez ere, ‘kausa’ hitza behaketez aztertutako izaki eta fenomenoetarako buruzko datuei dagozkio. Behaketak dituen muga eta baldintza berberak ditu zientziak.

2.- ETIKA GIZAKIAGAN DATZAN NORABIDEA DA: MAITAJARDUNA.

Norabidea

‘Gizakiak ondo ala gaizki hautatzean (gogoz, hitzez, egitez) datza etika”, esan dugu. Baina zer da ondo ala gaizki, zuzen ala oker hautatzea? Non dago, zertan datza bien arteko bereizketa? Zer/zein da ongia gaizkiagandik, faltua egiazkoarengandik, ederra itsusiarengandik bereizten duena?

Gure ekintzen norabide onetsia, beti, norbera eta beste gizaki oro maitatzea da; norberaren gogoko eta besteen gogoko dena maitatzea.

Egia maite dugu. Izadi osoa ulertu nahian ezagutari gabiltza, izaki eta fenomeno oro, gizakia bere neurri guztietan, batez ere elkarrekiko bizitzan. Den denaren zergatia, nondik norakoa argitzen. Gezurtiaren aurka gaude denok, gizartean eta giza bizitza osoan. Egiaren bila, egiaren ezagutari ari garenean zoriontsu gara.

Ederra maite dugu. Gizakiaren itxura, kosmosa, natura oso-rik eta atalka, hor dagoen oro, baita ere geuk gizakiok eginak, den dena nahi dugu eder, bizi, oso. Eta ederra gordetzen eta gauzatzen saiatuz ari garenean, zoriontsu gara.

Ona, ongia maite dugu gizakiok, lehen eta gaur, hemen eta lurbira guztian. Gogo barruko ustez maitasunezko diren ekintzak ematen ditugu ontzat; kontrako ekintzak, aldiz, okertzat. Puntu hau zehazkiago harrotu beharra daukagu.

Ikus gizarte, egitura, aro eta bazter guztietan zer eman izan dugun ontzat/zuzentzat. Gizakiaren onura, ustez gizakiaren gogoko, onerako izan direnak, zuzenean ala gizartearen erakunde bitartez. Maitajardunean eginak.

Eta bilari ari gara, ezagutari dihardugu, arilari gara. Guga dago bila jardutea. Ez gaituzte berez ederrak, ongiak, egiak erakartzen. Maitari garenez, gu ari gara ederraren, ongiaren, egiaren ezagutari, bilari, gure gogo barreneko norabidea den maite-senak behartuta. Maitari/hautari/ezagutari gara.

Asmorik okerrenak ere, zelan onarazten dizkigu iruzurgile maltzurrenak? Onerako, maitagarri izatearen estalkiaz jantzi eta eskainiz.

Gizakiaren jardunaren (etikaren) norabidea ez digu argitzen giza adimenak. Etikaren norabidea ez digu erakusten nahime-nak. Etikaren norabidea ez digu gogorazten oroimenak. Gure jardunaren -etikaren- norabidea, gizakiaren maita beharrak erakusten/zehazten digu une eta aldi guztietan.

Beraz, norabide den etika gizakian dago. Etika-norabidea adimena baino gorago dago; askatasuna baino gorago dago; giza ahalmen guztiak baino gorago dago. Maitagogoan dago. Berriz ere goragoko irudia lagungarri ekarriz, gizakiagan go-go da gidari/bilaria; eta adimena argigiletzat darabil, nahime-na indartzat, oroimena informatzailatzat. Gogo hautaria da de-nen kapitain-pilotu.

Gizakia norabidedun denez bere gogoaren muinean datzan norabidearentzat ibilbideak eta bidekoak aurkitzen eta berega-natzen dihardu. Beragan dago norabidea, hasieratik heriotzara arte. Une eta aldi bakoitzean bere norabidearen ibilbidea ari da bilari aukeratzen, etenik gabe. Gizakiak gizaki dirauen bi-tartean ez dauka norabidedun izatetik askatzerik.

Norabidedun den hautamena maitamenaren alderdi bat da. Gizakiaren izana eta jardunaren muina maitamena da. Maita-menaren alderdiak hautamena eta ezagumena dira. Maitari iza-teak hautari eta ezagutari izatea nahi du esan hitz berean. Gi-zakia soinezko maitagogo da.

Norabidedun izateak hori esan nahi du: ibilbide bat baino gehiago aurkitu -zuzenak eta okerrak- eta denen artean be-netako bere maitajardun ibilbidea aukeratzen ari beharra.

Gure maita-ibilbidea baldintzatuta eta mugatua egon ohi da, bai, bakoitzak eta gu bakoitzaren gizarteak mugatzen/eskaintzen/ezartzen dizkigun iritzi, ohitura, sinesmenen, legeen bitartez. Ezin dugu aldi bakoitzean gogoan eduki izan litezkeen ibil pista guztiak.

Geure ahalmen guztien berezko joerek ere gure giza gogo baldintzatzen digute, nolabait. Gizakiaren zentzuek, euren joera eta sen itsuen bitartez, baldintzatuta garamatzate, gure giza gogo euren berezko ibilbide itsuetara erakartzen.

Maitagogoak zeregin handia dauka, bere ahalmen guztiak jaun eta gidari maitajardunera norabideratzen. Askotan gizakiak gaintitu behar duen askatasun ezik txarrena norberaren barruko lokarriak dira. Gogoratzea besterik ez dago gure drogazaletasunak, botere goseak, pederastiak eta abar.

Baina aldi eta une bakoitzean maita norabideak esaten digu unean ezagunak zaizkigun artean zein pistatan eta zelan aurrea egitea dagokigun. Gizaki izate hutsaren indarra beti ari da, gure gogo muinean, -gogoz, ekitez eta hitzez- maitatze jardunera gu bideratzen.

Ezaguna da samariarraren parabola. Epai dezagun bere bizi-tzarako eta etorkizunerako botere eta ospe bila dabilen gizaki baten joera. Bidean horrelako txikikerietan eta sentimentalismoetan kateatzea/geratzea, samariarrak bezala denbora, dirua eta lana galduz, asmo handirik gabeko ergelek alperrik egiten dituzten jokabide tuntunak besterik ez direla iritziko dio.

Zera pentsatuko du: *‘Samaritarra eta horrelako epeltxoek jokatzeko daukate Kanten lege unibertsalek diotenaren arabera. Baina nik beste askoz goragoko helburuak dauzkat nire jardunbiderako: behar izanez gero milaka gizakien bizitza ere jokoan ipiniz agintea emango didatenak nire bizitzan eta ongile ospea betirako.’*

Zer esango diogu honela pentsatzen duen haundiki/mandikiari?

Bere jokabidea kaltegarria dela gizadiarentzat esaten badiogu, hau erantzungo digu: *‘Eta nik zertaz eduki behar dut ar-dura gehiago: gizadiaren kalteaz ala nire onuraz? Nire arazoa nik gora egitea da’.*

Baina gogoan edukiz noraino hel gaitezkeen giza naturari so eginez, besterik gabe, gure eta zure erantzuna hau da: *“Horrela jokatzeara, zeure benetako barrengo norabidearen aurka jardunez, zuk besteen eta zeure buruaren kontra diharduzu. Zeure izate maitaria garatuz maitariago egin ordeztu, okertzen, txikitzen, usteltzen ari zara.”*

Zoriona

Zoriona aipatu izan da giza ekintza guztien helburu/lorpen-tzat, Platon eta Aristotelesek egin ohi zuten bezala, giza jardunbide ona zorionera garamatzana dela esanez. Baina zer da zoriona?

Elhuyar hiztegiak honela definitzen du ‘zorion’ hitza: **zo-
rion:** *iz. Pozezko edo atseginezko egoera. 2. Pertsonak dituen nabi guztiak betetzearen eta bizitza berak nabi duen eran gertatzearen ondoriozko egoera.*

Guk, aldiz, zorionaz hitz eginda ere, ez dihardugu horrela definitutako pozezko edo atseginezko egoeraz. Guretzat benetako zoriona maita-jardunean datza. Zoriona ez dugu lortzen helburura iristean; hau da, saiaturaz gero zerbaite gura lortzen dugun unean. Zoriona ez da ekintzaren atarramentu/lorpenari dagokion sententzia. Gauza bat da helburura iristean sentitzen dugun emozio/atsegina, eta beste bat zoriona. Gorrotoz itsu norbaiten heriotzaren bila dabilena ere¹⁰, atsegin sententziaz bete daiteke hilotza ikustean¹¹, bere asmoa/nahia bete dela-

¹⁰ .”Sen odolzalea. ... Odolaren laudorioa mistikaraino iristen da..” Ander Iturriotz Lauzirika. “Boterea gizarte homerikoan” Utriusque Vasconiae, 2002, 96.

¹¹ “Odolzaletasun horren erakusgarri argia eskaintzen digu Homerok *Odisea* obran. Eriklea atsoak ezkongaiak akabatu dituen heroi gailenaren deskribapena egiten duenean:

eta. Baina atsegin hori ez da zoriona, inola. Ezta ere lapurretan edo legez kanpo bere kalterako den droga dosia lortzen duenaren pozezko atsegina. Ezta ere pederastak haurra eskuratzean duenean sentitua. Zorionezko norabidea atseginezko sentimendu guztien gaintikoa da.

Zoriona jardunean datza, maitajardunean, giza barrengo norabidean ibiltzean. Maita ahala zorionean gabiltza, zoriondun ari gara. Egiaren maitari jardun, edo ederraren, edo ongiaren hautari jardun, zorionean, zorionez dihardugu. Gorago esan dugunez, gizakia bere barrengo hautamenez espetxean, heriotzarako bidean, atsekabez eta minez ari denean ere ahalik eta zorion beteenean dihardu. Benetan gogoko duguna eta egiten ari garena bat direnean, zoriontsu gara, barrengo bake pozgarrian, minak eta atsekabeek jota jardun arren.

Zoriona eguneroko eta ordu oroko bizikizuna da, maila desberdinetan bizi izan arren. Jaten dihardugunean, gure osasuna zaintzen, familia eta lagun arteko festak ospatzen, ezkondu harreman goxoak edukitzen, maitajardunean dihardugu. Zoriontsu gabiltza.

Ataltxo honi amaiera emateko bi esaera ospetsu erabiliko ditut gizakia norabidedun dela berriz ere adieraziz. Egokiak dira uste baitut gure etikaren alderdi honen esanahia erakusteko, behar bezala zuzenduz. Lehenbizi Nietzscherena:

“Einen guten Wind? Ach, nur wer weiss, wohin er fährt, weiss auch, welcher Wind gut und sein Fahrwind ist.” NIETZSCHE, *Also sprach*, 340. “Haize on bat? nora doan dakienak daki ere bakarrik ze haize den on eta bere bide-haize.”¹²

“Odiseo handia dakus hilotzen erdian sutik, hauts eta odolez guztiz beteak; lehoia lirudike, abere-taldean hildako idiaren haragiz aseturik itzultzen dena.” Ander Iturriotz Lauzirika.

Boterea gizarte homerikoan” Utriusque Vasconiae, 2002, 96.

¹² Roman Garateren itzulpena: ““Nietzscheren inguruan. Gizakia (duintasuna), Jaungoikoa. Deustuko Unibertsitatea, 2000.14. orr.”

Baina guk esaten dugu: “*Haize ona? Norantz gogo-baizeak eramán, bura zaio gizakiari norabide on eta aldekoa*”

Bigarren esaera, Hiponako Agustinena: “*Dilige et quod vis fac*”. “Maita eta egin nahi duzuna”. Baina guk esaten dugu: “*Egizu gogoko duzuna, eta maite egingo duzu*”

Norabideari buruzko iritziak: Homeroren garaia, Platon, Aristoteles

Ez da erraza idazle-pentsalariak iritzizko mugetan bildu eta aurkeztea. Baina gure gaiari buruz gehienbat agertzen dituzten joerak aipatuko ditugu gure historiazko ibileratxoan.

Puntu bat azaltzen da garbi, nire iritziz, milaka urteetako etikazko emaitzetan. Gizakiaren miresmena ageri da ia beti etikari buruzko hausnarketetan. Baina etikari eustean ez dute substantiboari (gizakia berari) buruz jarduten, nolabaiteko adjektiboari (batez ere hiritar egoerari) buruz baino, berehala aipatuko dugun salbuespen bat izan ezik.

Adibidez: Homeroren gizakia¹³ indarrez eta gorespenez betetako izaera/egoera duen gizaki aristokrata da: guraso ospetsuen seme, indartsu, argi, gudari garaile, aberats, agintari. Zerbait etika deitzekotan, Homeroren garaian gizaki hiritarra bere hirian gorengo mailara iritsi eta bizitzean zetzan. Etikak ez ziharduen gizakiari buruz, gizakiak hirian zeukan egoerari buruz baino, bere aristokrata mailari buruz baino. Gizaki *hiritar-aristokratikoa* zen etikaren eredu aztergaia.

Homeroren garaitik Platonen garaira arteko eboluzioa, gizakiari buruzko hausnarketen depuratze prozesua da.

Platon gizakiaren zentzumenen, adimenaren eta ahalmen guztien sorbururantz abiatu zen. Platon bakarra izan zen, nire iritziz, gizakiaren muineranzko ibilbidea jorratzen. Kanpoan

¹³ Ikus Ander Iturriotz Lauzirikaren “Boterea gizarte homerikoan”. *Utriusque Vasconiae*, 2002

aurkitzen ditugun bestelako ente/ideietatik, gizakirantz. Gizakia adimenaren aztergai zen gehienbat garai haietan. Platonek gizakia bere barrenean aztertzen du –ezagutzen du- adimenaren eta ahalmen eta zentzumen guztien iturburutzat, argigiletzat. Nolabait, beste arteko pentsalariek gizakia kanpoan kokatzen dute hausnar-bide, adimenaren aztergaien eremuan. Platonek gizakia bera ipintzen du aztergai, bere ahalmen guztien emaitzen argigile den berbera.

Gizakiaren gogo barrenerantz joz aurkitu zituen oinarri/iturritzat ematen dituen ideia unibertsalen kokalekua, gero bere potentziek irudiz kanpoan aurkitzen joango direnak. Kanpoan ikusiak barrenean daukaguna berrikusarazten omen digute. Gizaki muinean daude ideia unibertsalak.

Baina Platonen norabide/azterketa hori, zuzenean, gizakiaren egari buruzkoa da, enteen ideien kokaleku/iturburuari buruzkoa. Gizakia berari buruzko etika/eginkizuna ez dago zuzenean garbi inplikaturik hausnarketa horietan. Oraindik ere filosofoez hiriaz, legediaz ziharduten batez ere, ez gizaki soil bakoitzaren osatzeaz, garatzeaz. Etika hiriaren alde, kosmos antzeko den hirian hiritarren zeukaten hierarkia naturalari buruzko hausnarketa zen. Gizakia hiriarentzat, hiriarena, hiritarrek hezia edo hezi beharra zen.

Beraz, Platonen denboretan ere, etika aldetik hiri politika da gizakiaren eginkizunaren neurri nagusia. Hiria gobernatzen parte hartzerik ez duena ez da aintzakotzat hartzen etikazko hausnarketetan, jopuak adibide. Zeregin hiritarrean nabaritzen da gizaki etikoa. Hirian izan behar du argi, onuragarri, gidari. Gizonezko herritar aristokratikoaren bertuteak dira goragarri.

Mailarik behekoenean hiritar ez ziren beste gizaki (?) batzuk zeuden, jopuak hain zuzen –nonbait askoz gehiago emakumezkoak gizonezkoak baino-. Gizaki esklaboak zeharo zeuden talde eragile aristokratiko horretatik kanpo. Etikaren arloan ez ziren adjektibo (hiritar) izatera heltzen, are gutxiago gizaki izatera.

Jopuen egoerari buruz gauza desberdin asko esan ohi da. Baina gogoan eduki behar dugu ondasunak maila askotakoak direla eta zirela. Ez zen berdina mendi bazterrean txabola bat edukitzea, ala hiri erdian palazio itzela. Ez zen berdina jopu (andrazko edo gizonezko) jakintsu, artista, eder, matematiko, gazte, langile trebe, zerbitzari sutsu edukitzea; ala gizatxar xume, motel, ezgauza. Baina gizaki izatean jopu oso estimatua ere ez zen ezer, ez baizen hiritar (adjektibo ere ez) izatera inondik inora heltzen¹⁴, eragin izpirik ez zeukan ez hiriari buruzko eta bere buaren egoerari buruzko eztabaida eta erabakietan. Beraz, giza-kien arteko bereizketa sakona, zeharokoa zegoen. Hiriko goian aristokratak. Behean, ezkutuan, hitzik gabeko jopuak.

Aristoteles berriz ere gizakiagandik kanporantz begira jarri zen etikari heltzean. Herri unibertsoan gizaki hiritarrak zeukan kokapenari. Gizakia zorion bila ari den izaki arrazoiduna omen da. Eta arrazoiz aurkitua izan behar da egia, baita giza-kiaaren barren-muina ere. Berriz ere jakin katea gizakitik adimenera eta adimenetik gauza/egietara norabidetzen da. Ondorioz, -logikon- den gizaki etikoa hiritarra da -politikon-, adjektiboz zehaztua.

Ondorengo filosofoak, nolabait, etikaren sailean Platonen ala Aristoteles jarraitzaileak dira. Batez ere gizakiaren oinarritzko definizioak dirau etenik gabe: gizakia animalia arrazoiduna da.

Baina ageri da salbuespen benetan garrantzitsu bat gizadiaren historian. Gizaki oro gizaki dela dioena. Gizakia substantibo denez eskaintzen duen nolabaiteko etika, filosofia ez bada ere. Gizakia bera aurkezten duena arazo nagusi/erakrri garritzat, ez gizakiari buruzko inongo adjektibo edo egoera. Berdin zaio gizakia hiritar nagusi izan ala esklabo, gizonezko ala emakume, jakintsu ala eskola gabea, bertako edo atzeritar. Berdin

¹⁴ "Esan gabe doa, pribilegiatuak izan ala esku-lan hutsean aritu, jopu haietako bakar batek ere ez zuela izango Biltzarrean esku hartzeko eskubiderik". Ander Iturriotz Lauzirika "Boterea gizarte homerikoan". *Utriusque Vasconiae*, 2002. 280. orr.

zaio aberats izango den, etxe ospetsuko, ausart gudan, argi plazan; ala azpi mailako, menpeko, ezikasi, jopu. Gizakia beti gizaki bete aurkezten duena, beti maitagarri, beti maila berdin berdineko, adjektibo orotik biluzik. Salbuespen hori, jakina, kristautasunak ekarri/eskaini zuen.

Gure aroko etika

David Humeren emaitzei buruz gero hitz egingo dugu. Kant berriz, esango nuke, nolabait aurreko filosofoen goi-bilduma dela. Kantek zera erakutsiko digu argi: adimenak denontzat egokitzen erakutsitako arauen arabera aritzea dela zuzen jokatzea. Baina ez du argitzen zergatik irizten diogun egoki/zuzen arau edo lege bati; ezta ere zergatik jokatu behar dugun lege egokien/zuzenen esanera.

Galdera honen lehenengo zatiari eman diogu gure erantzuna: arau bat ona/egokia da, maitajardunean aritzea eskatzen badu. Ez da ona denok onartua dela-eta; alderantziz, onartua izan ohi da, da, izan behar da, maita-araua delako. Kanten arau etikoa buruz-behera ipiniz aurkeztu dugu gure etika. Guk gizaki hautariak darabilela adimena maitajardunean esan dugu, eta ez adimenak gizaki hautaria gidatuz.

Galderaren bigarrenengo zatiari (“zergatik jokatu behar dut gehienen ustetan -inoiz ez denon ustetan- gizadiarentzat zuzen eta onuragarri omen denaren bila, baina nire joerekin bat ez badator eta nire asmoen kontrakoa baldin bada?”) samaria-raren parabolaz erantzun diogu. Besteen iritzizko adostasunik ezak gogoan hartu beharrik gabe, bere buruaren kaltetan ari dela sentitzen dugulako.

Kant geroztik ez dut uste etikaren fundamenduei buruz aurrerapen handirik egin denik. Beherago jardungo dugu eskubi-deen arazoari buruz.

Hori bai, Kant geroztik araudi zentzudunen bilduma ederrak izan dira eskainiak, gizakiaren izana aipatuz baina gizakiaren *egoeraz* jardunez, ez *izanaz*. Hamaika iritzi filosofiko-juridiko-

politiko azaldu dira, askotan elkarrekin borrokan, gizakiaren benetako ulerkerak erakutsi gabe. Olatu berriak (burubideak) elkarren gainera, baina olatu guztien hondo den itsaso handiaz - gizakiaz- isilik. Gure garaian hor dugu, beste askoren artean, Hans Küng-ek 'Etika mundiala politika mundiala eta ekonomia mundialarentzat' izenburuz gizaki hiritarrari buruz eskaini dizkigun hausnarketa/aholku zentzudunen bilduma. Baina H. Küng jaunak etika (arauak) bila dihardu gizakientzat; ez da gizakia-gandik abiatzen herritar eta politikariei etika erakutsiz.

3.- ETIKA GIZA EGINKIZUNEZ

Eginkizunak, ez eskubideak

Gure orain arteko hausnarketaren eduki/ondorio garrantzitsu hau ondo azpimarratu beharrezkoa da. Etikak egileaz dihardu. Ez dihardu eragina izan den gizakiaz. Hautamenduak hautatu dituen ekintzei buruz ari da. Etikaren aztergai-jarduna gizakiaren hautamenezko ekintza da, gogapenez, hitzez edo egitez burutua. Etikaren gaia ez da askatasuna. Arazoa ez da: 'zer egin behar didaten edo ez didaten'. Arazoa 'zer egin behar dut' da. Etikaren gaia eginkizunak dira, ez dira eskubideak. Eskubideei buruzko arazoa, gero politikari buruzko datorren atalean aztertuko dugu lasaiago.

Ez dago esan beharrik ere etika ez dela norbaitzuek adime-nez nolabaiteko gizaki hiritarrentzat aukeratutako legedia.

Gizakia ez da maitasuna, maitaria baizik, mugatua. Gizakiaren handitasuna hor datza, ahalmen horretan: oker jokatzeko ere gauza izanik, zuzen jokatzeko. Gaiztakeria da, nolabait, gizakiaren handitasunaren erakutsi-ahalmena. Eragozpen guztiak gaindituz, ahalmen guztiak bideratuz, gizakiak ederra, egia, ongia garatzea du zeregin, beragan, bere lagun hurkoen artean, bere gizadi osoan, kosmos ederrean.

Teoria gisa, hautariaren ekintzei buruzko azalpen-erakuspen-epaia da etika. Eginkizunean datza. Maitakizunean. 'Maita

gizakia, zeu eta bestea' eta, ondorioz, 'maita zeure eta bestea-ren gogoko dena' da gure izanaren norabide bakarra, iraunkorra, aldi eta une guztietan balio duena. Maitajarduna den giza eginkizuna.

Horregatik etikazko epaia, beti, egin duenari -edo egin beharra egin ez duenari -buruzkoa da; ez da egitez -edo ez egitez- eragina izan denari buruzkoa. Egile ez den neurrian gizakia etikazko epaipetik kanpo dago, besteen egina sufritu arren.

Eta gizakia gizaki denez eta beti ari denez zerbaitetan, etika gizaki hautariaren giza jardun era orori dagokio.

Eskubideei buruzko iritziak

Esan dugu etika ez dela eskubideei buruzko hausnarketa/dotrina. Etika eskubideei buruzko arazo/teoria dela esaten dutenen eskaintzak ez dute merezi aipamen berezirik etikaren oinarri bila daramagun hausnarketan. Aurrerago azertuko dugu puntu hau ere.

4.- ETIKA GIZAKIA DA; NORBERA ETA HURKO MAITARIA

Orain arte esandakoek 'zer da, zertaz da etika?' galderatik 'nor da etika?' galderara garamatzate. Etika, oinarritz, zer?, zertaz? baino gorago, 'nor?' galdera da. Eta erantzuna orain arte esandakoek zeharo argitzen dute: **Etika gizakia bera da.**

Gizakia soinezko maitagogo da. Gure soinezko izaki hau gizaki egiten duena, maitagogo da. Maitagogoak, gogo maitari izateak, beste bi alderdi dauzka beragan: ezagutari izatea eta hautari izatea. Maitari dihardu ezagutari, bila; maitari dihardu hautatzean.

Esan ohi da gizakia beti errespetagarri eta maitagarri dela, bere duintasunagatik edo beste zerbaitengatik. Baina gu oinarrien oinarritza joan eta zera esaten dugu: gizakia maitagogo denez dela maitari, dela errespetari. Lehenbizi maitari, gero maitagarri. Ni maitari naizelako zara zu niretzat maitagarri. Zu maitari zarela zara niretzat maitagarri. Ni maitari naizelako

behar zaitut zu maite. Zu maitari zarelako behar zaitut nik zu maite. Etika ‘nor’ da, etika gizakia da.

“Gizakia maitagogo da” esatean ez dugu aipatzen, ezertarako, zergatik, nork egina den gizakia maitagogo. Galdera horri egin diezaiogun erantzuna zeharo zabalik dago filosofia ororentzat, erlijio bakoitzarentzat, pentsamolde guztientzat. Guk etika unibertsala aurkezten dugu, gizakiaren ezagueran oinarritua, gure lanean inongo iritzien esentzialismo edo errebelazioen menpean jarri gabe.

Ez dago inor/ezer maitatzerik, ekintza berberaz norbera ere maitatu gabe. Maitatzea da norberaren alde egin dezakegun ekintzarik onena. Ez dago norbera maitatzerik, maitajardunean izan ezik. Giza ekintzaren arazoa, sakonean, ez dago maitatzeak dakarren ondorioan, benetan maitatze jardunean bertan baizik. Maitatzea izan bada, ondorioak onak dira.

On egitea besteei eta on egitea norberari ezin dira inoiz bi joera edo ekintza desberdin/aurkari izan. Ez dago dilemarik. Ez dago ‘ni ala zu’. ‘Ni eta zu’ batera doaz benetako etikan, benetako maitasunean. Etika eginkizun da. Eta eginkizuna, beti, nire eginkizuna da. *Nik* jardun behar dut maitari. Ni ari behar naiz *zure* maitari.

Gurea, gizakiarena, hau da: gizakia gizakiago garatzea. Maitagogo maitariago bilakaraztea, osatzea. Etikazko saioa ez da amaitzen: ‘zer egin diozu lagun hurkoari?’ galdetzean; ‘zer egin diozu zeure buruari?’ aztertzean baizik. Bere benetan gogoko norabidean -maitajardunean- dabilena lagun hurkoaren alde ariko da beti; eta baita ere bere aldeko. Aldiz, bere norabidearen kontra dabilena, bere hurko lagunaren kontra ari da, eta batera bere burua ere hondatzen.

Beraz, hau da, beti, jarduera okerraren kontrako azken argumentu nagusia: zure maita norabidearen alde badiharduzu egitez, hitzez, gogoz, zeure buruaren alde ari zara. Zure maita norabidearen aurka badiharduzu egitez, hitzez, gogoz, zeure buruaren kontra ari zara. Zeure burua alperrik galtzen ari zara.

Gure giza ezagueraz gizakia soinezko maitagogo dela esatean, zera eskatzen dugu printzipioz: Jaungoikoagan sinisten duenak (berdin da gizarte eraketa honen edo bestearen alde egonik ere), gizakiaren maitale/aldeko den Jaungoikoagan sinistu behar duela. Horrela izan ezik -zerbaitetan gizakiaren suntsitzea edo gogo/soin mozte/elbarritzea onetsiko balu-onartezina dela sinestedun horren jokaera hori, gizakiarentzat aurkako ekintza izan arren onartu egiten duen neurrian.

Etika, adimenaren aurkikuntza guztiak baino sakonago, goragoko, indartsuago da, gizakia delako. Filosofiaz eta teoriez ezer gutxi dakiten gizakiengan ere etika barruan dago, borbor-ka azaltzen da, gainezka egiten.

Beraz, etika sorburua gizakia da. Etikazko jardunbidea giza-
kia da. Etikaren helburua gizakia da. Etika gizakia da, nor da.

Etikaren sorburuari buruz: David Hume, Agustin Arrieta.

David Humeren etikari buruz eman ahal dugun iritzia ez da zeharo argia. Agustin Arrietak luze eta sakon dihardu Humeren hausnarketak aztertzen bere 'David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak' liburu zorrotzean. Argi dago Aristotelesengandik eta Kantengandik urrundu egiten dela David Hume, etikaren oinarria ez datzala adimenaren argitasunean baiestean.

“Reason being cool and disengaged, is no motive to action, and directs only the impulse received from appetite or inclination, by showing us the means of attaining happiness or avoiding misery; Taste, as it gives pleasure or pain, and thereby constitutes happiness or misery, becomes a motive to action, and is the first spring or impulse to desire and volition.”¹⁵

Batetik adimena ez dela eragile, argigile baizik dio. Hau da, ez dio eusten definizio zaharrari: gizakia ‘animalia arrazoiduna’

¹⁵ David Hume. Enquiry concerning the human understanding. Appendix I. Concerning moral sentiment. 21.

da. Bestetik, nahimenaren menpeko ekintzak ere naturari erantsi beharrekok ote diren dirudi¹⁶. Etikari buruz, batetik, pauso bat aurrera: gizakiagan zer bait dago adimena baino gorago. Baina bestetik ez dagoela benetako hautamenik, naturaren esanera jardutea baino. Behaketak aipatzen baititu azterbide bakartzat.

Agustin Arrietak honela idazten du:

“Bi intuizio aipatuko ditut oraingo bonetan. Batetik, morala ez dago inon idatzita; are gutxiago jainkoarengan. ... Morala praktika bat da, morala eraikitzen da, gizarte-praktika gisa eraikitzen da. Hortaz, morala, esaterako, ez da aprioriko printzipio razional batean oinarritzen den ezer.”¹⁷

Guk gorago eman diogu gure erantzuna Agustin Arrietaren esaldi honi. Etika maitagogo den gizaki bizian datza. Etika gizakia bera da.

Morala ez da gizarte-praktika bat, morala ez da eraikitzen, ez da aprioriko printzipioa. Morala gizakia da. Gizakia jaio eta morala jaiotzen da. Kokatu gizakia lurrean beste inor gabeko bazterrean; han morala dago. Ipini gizaki bakar bat nahiko dugun izar urritikoenaren satellite baten. Bere onean argi badago, han ere gizakiak maitatzea ala suntsitzea dauka bere burua; edertzea ala hondatzea bere ingurumaria, bere ase ezinezko jakin-nahia sakontzea. Han etika dago.

David Hume eta Agustin Arrieta jaunak natura aipatzen dute. Beste denak –sinesmenak eta abar- uxatuz/gaitzetsiz gero, zientziak behaketez eta esperientziaz aurkitu eta ezagutuak besterik ez daudela irudikatuz. Baina ‘natura bai, besterik ez’

¹⁶ Hemen adierazi nahi izan dugun naturalismoa haxe da: Hume giza go-goaren funtzionamendua azaldu edo esplikat u nahi du *kausazko legeak* erabiliz, hain zuzen ere, naturaren edozein alderdi azaltzeko edo esplikatzeko proposatzen diren kausazko legeen antzeko legeak erabiliz (ik. Garret 2006, 172). Zientifikoki uler daitekeen naturaren barruan kokatzen dira giza bizitzaren alderdi guztiak. Agustin Arrieta Urtizberea. “David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak.” Jakin 2006, 16-17.

¹⁷ Agustin Arrieta Urtizberea. David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak.” Jakin 2006, 11.

esanda ez da ihes egiten arazoaren muinetik. Horrela hitz eginenez galdera hau bihurtzen da arazoaren muin: “zer da natura?”

Esatean naturaren mugarik gaintitu gabe egin behar dugula azterketa, aztergai nagusi den natura bera geratzen zaigu ahaztuta azter eremutik kanpoan. Guk ere gizakia natura dela esaten dugu eta naturatik begiratuz nahi dugula aztertu etika. Eta galdera erabakigarria hau dela: naturan ba al dago izaki bat (gizakia hain zuzen) kausalitatearen kateak eten eta jaun/sorburu jardunez bere gogara hautatu egiten dituen fenomenoen azalpenak eta bilaka-kateak, bere jakin irrika bete nahian? Goratxoago esandakoak gororatuz: gizakiaren ekintza guztiak determinismoaren menpean diraute beti?

Arazoaren erdian hautamena dago. Kausalitatearen menpeko naturan ikusten duguna besterik ez dagoela esanez, galdera hau sortzen zaigu: ‘David Hume eta Agustin Arrieta beren liburu bikainak idaztean, alda ezinezko efeko-kausa-efeko-kausa kateko maila huts dira, ala ezagutari sutsu, hautari zuzen, egia-aren maitari sorburu? Determinismoaren azpian ez dago egirik ez gezurrik. Ekintzak izan litezke, nolabait, batzuentzat onuragarri batzuen iritiz. Baina gaizkia ala ongia, ez dagoz.

Den dena gal dezake gizakiak: askatasuna, osasuna, bizitza bera. Baina ezin du saihestu, argi bizi ahal den bitartean, hautamenez maitajardunean aritzea edo ez aritzea. Zuzen ala oker, baina hautari aritzea.

Beraz ados honetan: etika “ez dago *idatzita*; etika ez da *aprioriko* printzipio *razional* batean oinarritzen den ezer”. Baina ez gaude ados beste honetan: “etika gizarte-praktika gisa *eraikitzen* da”; zeren, gure iritiz, ***Etika nor da: gizakia.***

5.- ETIKA UNIBERTSALA

Etika bat da mundu osoan, gizakia (izaki hautaria) bat bera delako Afrikan, Ameriketean, Asian, Europan eta Ozeanian; eta gizakia egon litekeen -bakar bakarrik egonda ere- unibertso guztiko edozein bazterretan. Etika gizakia bezain unibertsala da.

Etika ez da sortzen gizakia gizakiarekin dagoelako, askotan esan ohi den bezala.. Etika ez da hiritarra, ez da politikoa. Etika goragokoa da, lehenagokoa, barruragokoa. Etika gizakia da bere giza egoera guztietan.

Beraz, etika bat bera daukagu denok, berdina daukagu giza-di guztiko gizaki guztiok: gizakia. Ez Txinako ala Ameriketako gizakia, ez jakintsua ala xumea, ez demokrata ala hierarkikoa, ez andrazko ala gizonezko, ez ateo ala sinestedun, ez kristau ala mahomatar, ez honelako ala horrelako hiritar; gizakia adjektibo guztietatik biluzik baizik, dagoen eta egon litekeen leku guztietan den gizakia. Batetik berdina gizaki (maitari) izatean, bestetik bereizia norbanako bakoitza izatean. Etika bateratzea lurbira eta unibertso guztian gizakia ulertu eta onartzean datza. Den denon onarpena eta zeregina da. Gizakiaren eginkizunak argitzean datza etika unibertsala, ez eskubideen oihukatzean.

6.- ETIKAREN BILDUMA

Orain arteko esanak laburbilduz, hauek dira hasieran bertan egin ditugun galderei emaniko erantzunak:

- 1.- Etika bada, bizi da. Gizakiagan da etika, ezagutari eta haur-tari ari den soinezko maitagogoan.
- 2.- Etika gizakiaren maitasunezko norabidea da. Gizakia norabidedun da. Gizakiaren norabidea maitajardunean aritzea da.
- 3.- Etika gizakiaren eginkizunez ari da, ez dihardu eskubideei buruz.
- 4.- Etikaren sorburua, jardunbidea eta helburua gizakia bera da. Etika nor da, gizakia da.
- 5.- Etika bat da Afrikan, Ameriketan, Asian, Europan eta Ozeanian, gizakia bat bera delako mundu osoan. Eta gizakia egon litekeen -bakar bakarrik egonda ere- unibertso guztiko bazterretan, etika dago. Etika gizakia bezain unibertsala da.

Jenaro Garate

(Jarraitzeko)